

2025IDLH0025

Hitzarmena

Aretxabaletako Udala eta KURTZEBARRI HH/LH Elkartearen artekoa

Bildurik:

Alde batetik, ELEXPURU,LETE,IKER jauna, NAN 16298217A duena, adinez nagusia, KURTZEBARRI LHI Elkartearen izenean (IFK zkb. S4833001C) eta ordezkartizan.

Eta bestetik, Garikoitz Iturbe Etxebarria jauna, NAN 72457054Q duena, Aretxabaletako Udaleko Alkate- Lehendakaria, Udalaren izenean (IFK zkb: P2001400G) eta ordezkari duena, horretarako behar bezala ahalmendua dagoelarik.

Bi aldeek hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta zera


ADIERAZTEN DUTE

LEHENA: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25. artikulua eta/edo Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 272016 Legearen 17. artikulua jarraituz, Udalaren eskumena da:

- Haur hezkuntza eta lehen hezkuntza irakaskuntza sustatzea eta bermatzea.

BIGARRENA: Kurtzebarri eskolak, haurren derrigorrezko irakaskuntza atalak eskaintzen ditu, haur hezkuntza eta lehen hezkuntza.

HIRUGARRENA: 2025eko azaroaren 18an aurkeztutako idatziaren bidez, Kurtzebarri eskolak, hezkuntza proiektuaren osagarri izan daitezkeen ekintzak antolatzeko, dirulaguntza eskatu dio Aretxabaletako Udalari. Eskabidearekin batera diruz lagundu nahi diren jardueri buruzko memoria, aurrekontua eta beste dirulaguntza eskaeraren inguruko zinpeko aitortpena aurkeztu ditu.

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria KURTZEBARRI LHI Elkartearen, Iker Elexpuru Lete
	Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAPMWMS.Y0NR



2025IDLH0025

LAUGARRENA: Kurtzebarri eskolak ez dauka debekurik dirulaguntzak jasotzeko. Debeku horiek lege honetan daude jasota: 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa; 13. artikuluko 2. eta 3. zenbakiak.

BOSGARRENA: Aretxabaletako Udalak onartuta duen dirulaguntzen 2025-2027 eperako plan estrategikoan, besteak beste, honako hau jasotzen da:

Dirulaguntzaren izena: Kurtzebarri HH/LH ikastetxearentzat hezkuntza proiekturako osagarriak diren jarduerak eta programak antolatzeko dirulaguntza:

Xedea: programa honen xedea da Kurtzebarri eskolari dirulaguntza bat ematea hezkuntza proiektua osatzeko jarduerak eta programa bereziak finantziatzen laguntzeko.

Udalak zer lortu nahi duen: ikastetxeko irakaskuntza kalitatea hobetzea eta hezkuntza berriztapena sustatzea, eta bereziki, zentroan, hezkuntza, kultura, zientzia, euskara, berdintasuna, aniztasuna, ingurumena eta inklusibitatearekin lotutako jarduerak eta proiektuak antolatu ditzaten bultzatzea.

Norentzat: Kurtzebarri HH/LH eskolarentzat.


Ematekoaren modalitatea. Izendun dirulaguntza zuzena. Zenbatekoa eta aurrekontu aplikazioa: 5.000€ 1.0511.481.323.00.02.2025 (1228)

Hori guztia dela eta, Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorreko 22. artikuluan eta horrekin bat datozen arauetan ezarritakoaren arabera, alde biek ondorengo baldintzek arautuko duten hitzarmen hau sinatzen dute.

KLAUSULAK

LEHENA: Hitzarmenaren helburua.

Alde bien arteko hitzarmen honen helburua da 2025. urtean Kurtzebarri eskolak hezkuntza jarduera osagarriak egiteko diruz laguntzea.

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria KURTZEBARRI LHI Elkartearen, Iker Elexpuru Lete
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAPMWMS.Y0NR

2025IDLH0025

BIGARRENA: Hitzarmenaren izaera.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta Sektore Publikoko kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legetik kanpo geratzen da. Halaber, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta lege horren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua aplikatuko zaio.

HIRUGARRENA: Kurtzebarri eskolaren betebeharrak.

Kurtzebarri eskolak 2025. urtean zehar antolatuko dituen ekintza guztietan Aretxabaletako Udala babesle gisa azalduko da. Horrenbestez, argitaratzen dituen kartel, euskarri eta antzekoetan Udalaren logoa agertuko da, Udal honek diruz laguntzen duela adieraziz.


Dirulaguntzen kudeaketan Udalak egin beharreko egiaztatze lanak onartuko ditu, bai eta eskuduntza izendaturik duten kontrol organoek -estatukoak nahiz erkidegokoek- egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontrolerako beste edozein ere, eta lan horiek egiteko errekeritzen zaion informazio guztia emango du.

Jasotako diruaren erabilera justifikatzen duten dokumentuak gordeko ditu, dokumentu elektronikoak barne, kontrol eta egiaztapen jarduketan helburu izan daitezkeelako.

Kurtzebarri eskolak jasoko duen dirulaguntza bakar-bakarrik dirulaguntzaren xederako erabiliko du.

Dirulaguntza zurituko du, eta ezarritako baldintzak eta betebeharrak betetzen ez baditu, dirulaguntza itzuli beharko du.

LAUGARRENA: Aretxabaletako Udalaren betebeharrak.

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria KURTZEBARRI LHI Elkartearen, Iker Elexpuru Lete
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAPMWMS.Y0NR

2025IDLH0025

Lehen alternatiba. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 65. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz, eta Aretxabaletako Udalak 2025. urterako onartutako udal aurrekontuekin bat etorriz, Kurtzebarri eskolari 5.000€ko dirulaguntza ematen zaio 1.0511.481.323.00.02.2025 partidaren kontura. Dirulaguntza honen %100a hitzarmena izenpetu eta zuriketa aurkeztu ondoren emango da, betiere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean baditu.

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22. artikulua dioena betez, Udalak datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuei kontsulta egin ahalko die Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko. Era berean, ikastetxeak ezingo du zorrik eduki Aretxabaletako Udalarekin.


Aurka eginez gero, elkarteak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko ditu, eta kontsultaren aurka egiteko arrazoiak adierazi beharko ditu.

BOSGARRENA: Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Diruz lagundu daitezke erabat beharrezkoak diren gastuak, jardueraren izaerarekin inolako zalantzarik gabe lotura dutenak eta diruz lagundutako jarduerak egikaritzeko aurreikusitako epearen amaiera baino lehen sortzen direnak. Honela, diruz laguntzeko moduzkotzat joko dira 2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitartean proiektuaren garapen eta egikaritzetik sortu edo eratorritako gastu arrunt guztiak, betiere aldi horretan zehar modu eraginkorrean egikaritu badira. Egikaritutako gastu gisa ulertuko da hitzarmen honetan ezarritako justifikazio epea amaitu aurretik modu eraginkorrean ordaindu dena.

Ez dira inolaz ere diruz laguntzeko moduko gastuak izango:

- Banku kontuetako interes zordunak.
- Interesak, errekareruak eta zigor administratibo edo penalak.
- Prozedura judizialetakoko gastuak.

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria KURTZEBARRI LHI Elkartearen, Iker Elexpuru Lete
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAPMWMS.Y0NR



- d) Zuzeneko zergak, berreskuratu edo konpentsatu badaitezke.
- e) Errentaren gaineko zergak.
- f) Ez dira erakundearekin lotutako langileen gastuen inguruko dokumentuak onartuko.

SEIGARRENA: Dirulaguntzaren bateragarritasuna.

Dirulaguntza hau bateragarria izango da tokiko, eskualdeko, nazioko, nazioz gaindiko eta nazioarteko administrazioetatik jasotako beste edozein laguntzarekin edo dirulaguntzarekin.


Dirulaguntzen zenbatekoa, bakarka hartuta edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin izango da diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan. Hala gertatuko balitz, elkarreak dirua itzuli egin beharko luke dagokion proportzioan.

ZAZPIGARRENA: Genero-berdintasuna.

Diruz lagundutako proiektua gauzatzekoan, Kurtzebarri eskolak ezingo du hizkera sexistatik erabili dokumentuetan, ikus-entzunezkoetan eta gisakoetan (idatzizkoetan zein digitaletan), eta pertsonen buruzko edozein estatistikatan datuak sexuaren arabera bereizita jasoko ditu.

Kurtzebarri eskolak ezingo du inolako dirulaguntzarik jaso honako kasuetan:

1. Bere xedeak edo helburuak, kideak onartzeko edo sartzeko sistemak, funtzionamenduak, ibilbideak, jardunak, antolamenduak edo estatutuak direla-eta, emakumeen eta gizonen berdintasun- printzipioa urratzen badute.
2. Administrazio-, lan- edo zigor-bidez irmoki zehatua izan bada, sexu-arrazoiak direla-eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren eskubidea urratzeagatik.
3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak, otsailaren 18koake emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabeko bizitzarako ezarritako betekizunak betetzen ez baditu.

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria KURTZEBARRI LHI Elkartearen, Iker Elexpuru Lete
	Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiatzotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAPMWMS.Y0NR

2025IDLH0025

4. Ez dira diruz lagunduko, ezta ere, emakume edo emakume-taldeen bereizkeria eragiten duten jarduerak, izan sexuagatik izan diskriminazio anitzeko faktoreengatik, hala nola: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritziak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa, genero-identitatea, genero adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibotasun-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratiboa.

ZORTZIGARRENA: Euskararen erabilera

Erakunde onuradunak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu — euskarari lehentasuna emanda— diruz lagundutako jardueran argitaratzen dituen idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak, eta publizitatearekin ere, ahozkoa zein idatzia izan, berdín jokatu beharko du. Halaber, ekitaldi zehatzetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan eman beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da. Hori guztia, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuan xedatutakoa betez.


BEDERATZIGARRENA: Jarraipena batzordea

Hitzarmenaren jarraipena egiteko alde bien artean osatutako jarraipen batzordea eratuko da eta alde bakoitzak kide bana izendatuko du. Batzorde hau alde bietako edozeinek eskatzerakoan batzartuko da hitzarmena betetzeko egon daitezkeen desadostasunak konpontzeko.

HAMARGARRENA: Dirulaguntzaren zuriketa.

Kurtzebarri eskolak jasotako funtsen erabilera egokia zuritzeko konpromisoa hartzen du.

Zuriketa hori, nolana ere, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 30. artikuluan eta lege honen Erregelamenduaren 72. artikuluan xedatutakoari egokituko zaio, eta 2025eko abenduaren 29a baino lehen aurkeztu beharko da Aretxabaletako Udaletxean, erregistro elektronikoko bidez, eta

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria KURTZEBARRI LHI Elkartearen, Iker Elexpuru Lete
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAPMWMS.Y0NR

2025IDLH0025

honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

Jardueren azalpen memoriaz gain, egindako jardueren kostua justifikatzeko memoria ekonomikoa, honako hauek jasoko dituen:

- a) Jardueren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data adierazita.
- b) Fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo eraginkortasun administratiboa duten dokumentuak, aurreko paragrafoan aipatzen den zerrendan sartuta daudenak, eta hala badagokio, horien ordainketa egiaztatzen duten agiriak.
- c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda zehatza, zenbatekoa eta jatorria adierazita.
- d) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko gerakinen kasuan, bai eta horietatik eratorritako interesena ere.


Dena den, memoria ekonomikoaren ordez kurtzebarri eskolak kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako auditore batek egindako urteko kontu laburtuen auditoretza txostena aurkeztu ahal izango du.

HAMAIKAGARRENA: Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmen hau indarrean egongo da azken sinaduraren egunetik 2025eko abenduaren 31 arte. Berau aldatzeko alderdien aho bateko adostasuna beharko da.

HAMABIGARRENA: Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen dituen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromisoa hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa betetzeko, aplika daitekeen

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria KURTZEBARRI LHI Elkartearen, Iker Elexpuru Lete
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAPMWMS.Y0NR

2025IDLH0025

guztian.

HAMAHIRUGARRENA: Hitzarmena azkentzea.

Hitzarmen hau azkendu egingo da bere xede diren jarduerak betetzen direnean edo suntsiarazteko arrazoiren bat dagoenean.

Hauek dira suntsiarazteko arrazoiak:

- a) Hitzarmenaren epea igaro izana.
- b) Alde bien aho bateko akordioa.
- c) Alde bietako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.


Kasu honetan, bi aldeetako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio bete ez duen aldeari, ahalik eta lasterren bete ditzan urratutzat jotzen diren betebeharrak edo konpromisoak.

Errekerimendua egin eta gero ez-betetzeak bere horretan jarraitzen badu, errekerimendua egin duenak beste aldeari jakinaraziko dio suntsiarazteko arrazoia gertatu dela, eta hitzarmena suntsitutzat joko da. Kasu horretan, hitzarmena suntsiarazteak eragindako kalteak ordaindu behar izatea ekar dezake.

- d) Hitzarmenaren baliogabetzea deklaritzen duen erabaki judiziala.

HAMALAU GARRENA: Jurisdikzioa.

Hitzarmenaren aplikazioari, interpretazioari, aldaketari, suntsiarazpenari eta ondorioei buruz sor daitezkeen eztabaidak alde bien artean erabakiko dira, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarri aurretik, judizioz kanpoko akordio batera iristeko bide guztiak agortuko dira.

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria KURTZEBARRI LHI Elkartearen, Iker Elexpuru Lete
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAPMWMS.Y0NR




2025IDLH0025

Bestela, administrazioarekiko auzien jurisdikzioko organoek izango dute auzigaiak ezagutzeko eskumena, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

HAMABOSGARRENA: Gardentasun ataria.

Hitzarmena Udalaren gardentasun atarian argitaratuko da.

Eta jasota gera dadin, adostasuna adierazteko, aldeek elektronikoki izenpetzen dute hitzarmen hau, eta azken izenpetzailearen data hartzen da dokumentu hau formalizatzeko datatzat.

Sinatzailea	ALKATEA Garikoitz Iturbe Etxebarria KURTZEBARRI LHI Elkartearen, Iker Elexpuru Lete
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAPMWMS.Y0NR